Gerura joan nahi dena, tar dadiela attie herbitik;
geren ifernuetako attiea zabala baita, eta harat deraman
bidea nasaia eta gerutko bizitzat deraman attiea aldiz herbiz
da, eta harat deraman bidea meharra, eta gutiak dire
hura hartzen dutenak.
eta hainitzak dire bide hori hartzen dutenak
J.C. dio hemen ez ditekela joan gerura bide errech eta zabaletik,
beha kurutzetik ziaganez joan dela gerura, gurutzat ez dela bertze
bidorik - Bortchatu tehar dela bere burua tekatzerik eta egiteko,
ez dela harku tehar mundutar hainitzek hartzen duten bidea,
bainan gizaitino onek hartzen dutena -
Hainitz joanen direla gerurat, eta guti; hainitz ifernurat eta
guti, hori egun batez zakinen dugu; orai ez zakinik ere, berdin
balio du gurutzat - Herri huntarik bat bezik ez baitik ere ifernura
joanen denik, teldu ajan tehar nuke takar kurá ni nerori
izaiteaz - Facions notre Salut avec confiance dans la miséricorde
infinie de Dieu, avec crainte de sa justice - Ez beha munduarrei,
bakotzbak bereaz egin lega -

Faux prophètes -

Bi egira zaileyte gezurrezko profetetarik - heldu baitzaizkitzuete
ardi larraz raunkitirik, barnez otso harrapari batzu direlarik.
Beren fruitueetarik dituzue ezaguturen! Ethorrietarik biltzen
ditte dire mahatsak, edo lapharretan piikoak? Arbola onak
fruitu ona dakar, aldiz arbola txarrak txarra dakar. Arbola
onak ez dezake emon fruitu gaichtorik, ez eta arbola txarrak ere
fruitu onik. Edozein arbola fruitu ona ematen ez duena,
ebakia izanen da, eta sutat arthiztia. Beraz beren fruitueetarik
ezaguturen dituzue. Gizon onak bere bihotz onetik atheratzen
du ongia, eta gaichtoak, bere bihotz gaichtotik gaizkia.

(1) Hemen J. Kristo minutia da Farisaeer ed Escribes - Hek itchuraz arras
zuzentzen ziren ohitzioneko bahatzu bainan barnez J. Kristoren aurkari - eta
ez zuten konfesatzerik bolere. Hortakotz gizon sallahaiseak behar zela hekien
etzan maskaretarik beiatu. Askotzeta hekien fruitueri behatzea, hekien
konfesteri, eher - illustreko zer gizon - Urrbat, oraiko eguneko ere badire,
zendeari sinesbaraki nahi siettetenak, mundu hau bainik hobeki
igaroka ezpijioneak ehenduz; harkara entseatzen direnak, bainan
hekien obetarik ikusi da zer fruitu txarrak etzan dituzten; hekien
gezurrezko estanperi behatuz, zenden artean miseria gabezia eta
elgar ezin ikusia ernesdatuz joan direla -

(2) Hemen J. Kristok dio ez dela aski gaizkirik ez egitea, behar dela ere
ongia egin - Ez da beraz aski erraitea: nik ez dut hekaturik egin, ez dut
deus lapurtu egiten jainkoari, ez eta lagunari - behar da oraino bahatu
Jainkoak emaiten grazies, zerbait ongi egin lagunari, bere gorputzean, bere arimari,
bertzenar sutat arthiztiak izanen gira arbola deus onik ekarkiten ez duena
bezala -

Oeuvres d'accord avec la foi -

Jesusen sarrtzeko ez da aski niri erraitea: Jauna, Jauna!
bainan ene aitaren nahia egiten duena, hura da sarturen
zeruko erresumaan - Ez du balio eni erraitea: Jauna, Jauna!
ez egitekotz nik erranak - Aspaldian egunean, askok erranen
dutzate: Jauna, Jauna, guk ez othe dihugu jure izenean debruak
iraiji, eta asko miraculu (sendatze) egin? Eta nik orduan erranen
diet: Egundaino ez zaituztet ezagutu, urrun zaitezte
ni ganik, txarkeria egileak -

(1) Jesukristok dio hemen ez dela aski sinestea, ez eta ere othoitz egitea (domaine divine)
ez eta ere miraculu sendatzen egitea, gerora praitzeko - Jarmaltiak izanen
gira ez badu egiten, obratzen jainkoaren nahia, errana, manamendiak - behar
dena gostatik ere -

Huna nor iduri duen ene erranak aditu eta obratzen dituenak:
Iduri du gizon gurbil edo zuhur bat, bere etche berria harriaren
gainean eta harnatik jarri duena. Heldu dire uharrak, haizeak,
jotzen dute etche hura, bainan ez da erori; harriaren gainean
asentatua delakotz - Aldiz ene erranak aditu eta egiten ez dituenak,
iduri du gizon zoro bat, lurretche berri bat egiten duena ez harnatik
bainan lur achaletik, ez harriaren gainean, bainan legarraren edo
arearen gainean. Heldu dire uharrak eta haizeak, jo dute etche
hura, eta joan da lurrera, leherturik -

(Jesu Kristoren aditzaileak, bazitzekeen asko Jesusen erranak miresten
zituztenak, eder zitzaizkolinak, ez ordean egiten obratzen, eta hekatulan
erortzen zirenak, delako etche legarraren gainean egin hura bezala - J. Kristok
dio orbat izanen dela gureiztat - (Ederzaizkie Jesusek erranak, mais faut les faire -
mentzoniera gainetik)

Jesusek akhabatu zuelarik mintzaldi hori, osteak espantuak
zauden aditu ziozkaten irakaspenez - Irakasten baitzioten ezlu
duenaz bezala, eta ez Farisaeek bezala -

Lepreux

Gero mendikik jauksi zenean, oste handiak zarraiki zihoazkon (jendetik). Hogeta hamar legentsu bat (lepratsu) hurbildu zitzaion. Jesusi, eta adoratu zuen, erranez: Jauna, zuk nahi baduzu, sendatu nezakezu. (Lepra da gaitz bat, larrua harkzen duena, kolpua duena, zinkirie handi eta luzeen tuduan, hil arazten duena - maiz illunsten da igurki aldean. — Lepratsu horren ethorkia laburra da, bainan jende handikoa — Sinis-petus —)

Jesusek eskua hedatu rik, hunditsu zuen, jotarik: nahi dut. Sendatu zaite - Eta han berean joan zitzaion legena - Jesusek manatu zion - Beraurtzu nihori erran (jendatu zaitidala) - bainan joazi, ager zaite apez nausiari, eskaini zezu diruzek hortako manatu emaitza, sendatua zarelako lekuko (sêd Seinak) giza - (lepradunak bizkitzen hurbiltzeko debekatuak ziren - kolpua jotatakotz - Sendatzen bazuen, ez zitzaikeen hurbil non ez ziren apez kolpek ematen sendatuak zelako Seinalea - Seinale hauen bidez, zuen Jesusek igorri lepradun sendatua -

Bainan hartzez, Jesusen gainik urrundu zeneko, asko jalatu zuen bere sendatze mirakulugilea: oste handiak bazarraiztion, Jesusi, haten entutera, heren gaitzetarik sendatzeta, halatan non Jesus ez baitzitakeen gehiago agertu hiri hirian, ithoitzean lagoi basa lekuetan (hetarik ere) jendea bazioakon ortzetik -

Piarresek galdegin zion Jesusi = Nausia, ene lagun batek eni bidegabe egin eta, zenbat aldiz beharko diot barkatu - zazpi aldditaraino?

Jesusek ihardetsi zion: Nik ez dautsut erraten zazpitaraino, bainan bai zazpitan hiru hogei eta hamarretaraino - (cf. Injures)

Jehin errege batek nahi izan zituen bere sehiekin kondoak eskuratu - Ekharri zioten sehi bat, hamar mila talentu zor ziozkana (hamar mila talentu horiek balio zuten oraiko bo miliun - diruzko zor izigarria - ageri da Jesus hemen alegiaz mundio dela - adierazteko sehi horiek bazuela zor bat ezin pagatuzkoa)

Sehiak ez baitzuen zorraren pagatzekorik, nausiak manatu zuen sal zezaten sehi hura haren emazte, haur eta zituenak oro, eta hala galdu zezan zorra - Sehi harek aldiz, ahuspeka emanik, otthoitzen zuen, erranez = Igurik nezazu, eta bihurturen daotsitzut oro.

Sehiaren nausia urrikaldu zen; utzi zuen eta barkatu zion zorra.

Nausiaren etchetik atteratzean, sehi harek atzeman zuen bere sehi lagunetarik bat, ehun denario zor ziozkana (ezta anaia ehun libretara heltzen - zor hau ochitoaren aldean deus ez - izpatxu eder bat!)

Eta sehi lagun hori lepatik harturik, ithotzen zuen, erranez = Bihur ezadak zor dautakana - Sehi lagunak, hurrera ahuspez eroririk, otthoitzen zuen erranez: Igurik nezazu, eta bihurturen daotsitzut oro - Bainan harek ez zion or-hartu, preso har arazi zuen, zorra bihurtu arte - Bertze sehi lagunek, hori ikusirik, damu min harturik zuten, eta joan zirien nausiari erraitera ongan zitzenak oro.

Orduan nausiak deitu zuen (sehen) sehia, eta erran zion: Sehi gachtoa, hire zor guzia barkatu dautat, otthoitu nauzulakotz - ez ottoe hintzen berak hire urrikaldu behar hire sehi lagunaren alderat, ni hire alderat urrikaldu naizen bezala? Eta bere hasarrean, nausiak eman zuen burreetan eskuetara (gaztigatzaileen) zor guzia bihurtu arte - (hola zor horri ezin pagatuzkoa baitzen, handiegia, hemen J. Kristok adierazten du iformurak izorri zuela, zuen han bezala bekatuoka bethi pagatuz bethi jardun egonen baita)

Ene aita zerutiarrak ere halaber eginen dautzuela, baldin bakoitzak zuen anaiari ez badiozue bihotzetik barkatzen -

Serviteur du Centurion.

Solas horren ondotik, sarta zen Kafarnaumen. Han bazen aitxindari baten muthila, bere hauziak hainitz maite zuena gaitzak hartua, eta hiltzera zohana. Aditurik Jesusen aithua, aitxindariak igorri siozkan judueldarikako zahar batzu, errattera ethor zadien haren sehiaren sendatzera. Zahar hauiek herts ahuki othoitzu zuten Jesus, errunez: Aitxindariak meresi du egin dezozun hagunkia hori; gure sendakiarentzat ona baita, eta berak egin baitrauzku sinagoga.

Jesus joan zen berekin, eta aitxindariaren etcheko hurbiltzean, aitxindariak igorri siozkan lerro batzu adiskide batzu ergitera: jauna, ez gaitzeta neka nere gatik, ez baitut meresi bar zaiten ene etchean. Horra ere geltoko ez hainbeste menkuratzen, berori ethortzera gure bidera. Bainan errazu hitz bat, eta sendatuko da ene muthila. Ezik, nik ere, berzen peko nizelarik, baditut soldado batzu ene menpeko, eta erraiten diot bati: joazi eta badoha; eta bertze bati: zato eta hurbil zait. Eraten diot sehiari: egiju hau, eta egiten dau!) Heri aditurik, Jesus espantatu zen, eta iraulirik ondotik zarraizkon osteen aldera, errun zuen: Egia, ez dudata Kausitu judauen artean ere, hainen sinestea handirik! Diot oraino, hainitz jinen direla igurki aldetik eta mendealdetik, eta zartzo diotela zeuro errestuman Abrahamekin, Isaakekin eta Jakobekin Gelditi judauen umeak arthuzkiak ilunen dire kanpoko ilhumbetara - han izanen baitzire marraskak eta hortz karraskak. Jesu errun zion aitxindariari: joazi, eta egin bekizu zure sinestearen bezalaxea. Orduhartan berean sendatu zen muthila.

Eta jesusen gana jinak sirenak bertzi etcherako zirelarik, sendatua adiaraun zuten eri izaki sehia.

1) Si merci, fohl maitia, je me sentais guéri, si j'avais la volonté, seulement, être profondément guéri.
2) Jusse Seigneur, que monsieur pénétrait sous mon toit. Je n'aurais pas cru, le fussiez-vous pas venu de la région - redemption - il le refusait, seul régnait - D'autres viennent et partent et font ce qu'on leur dit.

Handik Jesus bazohan haïm deitzen den hiria, eta haretin zoazin haren dijipuluak, eta jende oste handi bat. Hiriko bithera hurbildu zenean, hara hil bat eramaiten zerathatena, bere amaren seme bakarra - ama alhargunen zen, eta haretin bazen ahokuan jende haimitz. Jaunak ikusi zuenean ama, urrikaldurik erran zion: Bizarrik ez egin. Hurbildurik, hunkitu zuen kutcha. Skarleak (karraiatzaleak) geldidu ziren. Jesusek esiku egin zuen: gizon gartea, nik erraiten daukut, zaiki zaite! Eta hila jena jarri zen eta mintzatzen hasi. Jesusek eman zion jenlea bere amari. Zialdunak harthu zituen han ziren guziak, eta goresten zuten Jainkoa, errunez: Ala profeta handia agerthu baita gutarteen, Jainkoa urrikaldu da bere populuaz. Piste horren zolasak jo zituen judueko eta inguruetako toki guziak.

Message de Jean Baptiste

Rappelez-ici 1° Baptême de J.C. 2° histoires nombreux peuples Samaritains et paralytiques
3° épître entre disciple de Jésus et de J.B. - ici nous en faisons peuple Hébreux -
Entendu de temps Jésus guérisait - miracles -

Joanesi presondegirat ethorri ziozkaten bere dijipuluek, Jesusek egin zituzkuen berri handiak. Dijipulu betarik bik igorri ziozkan Jesusi galdatzera: Zu zarea ethorkizkoa zarena (mundurauen salbatzeria) ala beste norbeit behar othe dugu igurriki. (Jean était heureux des succès de Jésus - mais pas ses disciples qui regardait Jésus grandir et Jean diminuer, entre - Jean les envoie à Jésus, pour le gagner à Jésus par une voie personnelle de ses miracles -)

Gizon hek Jesusen gana ethorri zirenean, errun zuten: Joanes Batistak gu zaitu hemen gana, galdatzera: Zu zarea othe ethorkizkoa zarena igorthen gaitzu zure gana, galdatzera: Orduhartan berean Jesus ari ala bertze bat behar othe dugu igurriki. Orduhartan berean Jesus ari zen etcheko hainitzen sendatzen, gaitz, zauri eta ispiritu gaichtoetarik - askoren ikusi ere emaan zuten argia. Hurbildurik gizonen gana, bi gizon hek errun zioten: Joanes Batistak ... Jesusek ihardetsi zioten: Joaite Joanesi erraitera zer duzuen adiku eta ikusi: itsuek ikusten

dutela, mainguak badabilkiala, segenduak garbitzen direla, hilak piztu direla, beharduneri adiarazgorrek adituen dutela, hilak pizten direla, beharduneri adiarazten zaiotela ebanjelioa (Jesus donne comme preuve de sa divinité qu'il ressuscite les pauvres - Les paralytiques peuvent avoir mépris - Combien comme valeur - Depuis, Voltaire ipse dixit - on pense il suffit de la paille et un aiguillon - et dire qui nobre evangile hui a atteint ce statut -

Eta dohatsu nitaz gaitzidezik harturen ez duena -

Bienheureux celui qui ne trouvera pas en moi sujet de scandale -

Joanes Bapbistaren gana ifiuli zirelarik haren bi mandatariak, Jesus hasi zen Joanesez mihiaken han zirenei: Zeren ikusitera joan zarete mortura? Haizeak derabilan khanabera baten? Ala zeinekо gurii jauntzia den gizon baten? (Roseau, c.à.d. homme sans caractère tournant à tout vent - Kamela larruz jauntzia zen - larrezko otzeak jaten - (mortifié)) (Gizona norat bira harat)

Ez erregeen jauregietan dire ederki jauntziak direnak eta gurikii hiji direnak - Bainan zeren ikusten gan zarete bada? Profeta baten? Bai, eraciten dautziuet, eta profeta eta baino handiago den baten ikusten - Hartaz mintzo da liburu (Scriptura) zirudua diotelarik: Hunat hon jure aitzinean ni igortzen dudan ene aingerua, zuri bidea aphainduren dautzuna (Vidimus ad Patrem Jean montrant Jésus au peuple: Ecce agnus dei - L'engagement à la pénitence par recevoir le salut qui approche - (Latin: Prophetæ nuntiaverunt, Baptista ostendit Salvatorem)) (1)

Egiaz derrakiuet, emazteakin umeen artean, Joanes Bapbista baino profeta handiagorik ez da (1) Bainan gerthatzen da gutiago den hura eta halere zeruan den chumeena, hura baino handiago da - Joanes Bapbistaren egunetarik hunat, zeruko erresuman ez diteke sar, hire burua bortchatu gabe, eta zerua iabatzen duke borrochatzen direnek (subluxatu behar contre ennemis du dedans famine ajhura gachtoak -, du dehors tentations, persécutions

Farisaudarik batek (simon) otherritu zuen Jesus bin zakion harekin barkaitera - Farisauaren etchera sarturik, eman zen mahainean - Emazteki galdu batek (Madalena, martharen eta lazaren arreba, betaniko herri batekoa) jakin zuenekо Jesus mahainean zela Farisauaren etchean, ekarri zuen (alabastro) untzi bat olio usain on batez betbea; eta gelditurik zagoelarik haren oinetan, hasi zitzaion bere negarrez zangoen bustiken, eta bere billoez chukatzen; gero zangoak bezkatzen ziozkan eta gantzutzen olio usain on harekin - (Je dépose que le ancienne prénitente fut pécheresse publique - mais chacune histoire est à part et différente, et aucune juge de l'une pourra prouver que l'autre est la même - Les quatre évangiles ne parlent pas de la même femme -)

Horri ikusirik, Jesus bezkaitera zin-arazi zuen Farisauak eman zuen bere baithan: Jesus hau profeta balitz, balakike Segur nor eta zer den emakumen ari zaion emazteki hori, emazteki galdu bat dela -

Jesusek eman zion: Simon, badut zerbeit zuri erraiteko - Simonek ihardetsi zion: Mausia, erraiu - Jesusek erduan: Harzedun batek bezkuen bi zordun, batek zor ziozkan dezenario, bertzeak berrogoi-ta-hamar (denier=salut d'or) Baina nola ez baitzuten bihurtzeko nork, barkatu zieten bieri - Gerat bietarik zeinek du maitzenik harzeduna? - Simonek ihardetsi zion (sur-le-champ) - Zerrik handiena barkatua ijan zaionak - Jesusek eman zion: Onqui minizu pare - Eta ifiuliric emazteki aren alderat, Jesusek eman zion Simoni: Ikusten duzu emazteki hau? Sarka naiz zure etchean, eta ez daukazu urik eman zangoen garbitzeko, bainek aldiz negarrez busti dauzkit eta bere billoez chukatu - (on y marchait au pieds nus - idée de confiance avec laquelle on entre dans l'intimité d'une famille - on lui donne pieds à baiser comme à Rome qui n'avait pas fait - ici - hospitalité que la fidélité même aujourd'hui se fait, je ne connais pas d'exemple de cela aujourd'hui) Et daukazu musurik ez, bainek aldiz, sartu geroz, ez da ene zangoen bezkatzeko baralta eman, hau aldiz, sartu geroz, ez da ene zangoen bezkatzeko baralta - Horlakotz erraiten dautzut nik: Hoben barkatuak dizkakotzkiz, barkatuak maite nu - Aldiz gutiago barkatzen zaionak, gutiago du maitatzen - Gero emazteakiari eman zion: Zure barkatuak barkatuak zaizkitzu - Bazkidearrak hasi zitzen elkarri erraiten: Nor da hau, bekatuak ere barkatzen baitzitu - Bainan Jesusek eman zion emazteakiari: Zure sinestean salbatu zaitu, joazi bakean

(Ce qu'il dit ici est la même chose que ce qu'il dit à Simon - la même parole - la même image - la même leçon - mais ce n'est pas la même femme - on a mis ensemble deux histoires différentes - on a fait de Marie-Madeleine une pécheresse - Elle ne l'était pas - Elle était une femme pieuse - Elle était une femme de la ville - Elle était une femme de la campagne - Elle était une femme de la ville - Elle était une femme de la campagne - Elle était une femme de la ville - Elle était une femme de la campagne

— Saintes femmes —

Jesus Jesus hiri-herritan gaindi zabilan, adiarazi zuen Jainkoaren erreinuaren ebanjelioa - Haretan zuen hamabi apostoluak, bai eta emazteki batzu, izpiritu gaichtoetatik eta asko erritasunetatik emaitez zituenak; Maria, Madalena deitzen zutena, eta zazpi demoniu zituena; Joana Herodesen etchegojenaren emaztea, Susana, eta beste asko, beren ahaletarik Jesusi bizitzeko emaitez zituena (Jesus pêcheur - donne pas de ressources - vivait souvent quelquefois de la pêche; il vivait des aumônes de femmes pieuses, item hodie Ecclesia dotat evangelistas, formas de ministros; elle accepte les secours en échange des bienfaits qu'elle procure aux fidèles, ainsi soit-il -)

Jesus etchera zeneko (à Capharnaüm) jende oste gaitza bildu zen harazu, eta ez zuten ashirik usten, jateko pitilka bat, hartzeko ere. Orduan ekharri zioten debruduen bat, itsu eta mutu zena. Harturik Jesusek iraiz zuen debrua; eriari eman zion minetzoa eta bicita, eta denak harritzeak egon zirenez zitzetarik: Hori ez dea David en semea? (Est-ce du fils de David ...)

Aldiz Jerusalemetik harat jautsirik zuten Fariseoek eta Eskribauek erraten zuten: Jesus hori Belzebulez (debruak) hartua da, eta debruen buruzagiaren indarrez (bidez) iraiten ditu debruak - (Jesus chasse les démons par le pouvoir de Satan, prince des démons)

Mirakuletarik, egoen zen gaitzi, Jesus Jainko zela - Miraku hoik, Jesusen obraek berak (Jainoak) ez zezaketen ukha denen histan eginak baitzuten - Bizitzearteen, beren herra gaitzan, ez zuten aithortu nahi Jesus Jainko zela, bere Jainkotzako indarrez egiten zituela miraku hoiek - Eta nola debruak egin baitzitzazke gizonaren indarrez zenbeit gauza batzu, Fariseu hoek gizonek egiten zituela miraku hoiek, es bere Jainkotzako indarrez, bainan debruak bagundun - Horra zer asmatu zuten, aithortuko zuten baino lehen Jesus Jainko zela - Huna nola atheratzi horri Jesusek ihardesten duen - Hodie omni explicabimus de Beelzebub et Diabolo ...)

Jesusek jakinik zer zerazaten, hurbilarazi zituen, eta erran hitz estaliyan: Zi aldetara berezia den erreinuna, Chakutua izanen da; bi aldetara berezia dagon hiria edo etchea hurrerako da. Satanek nola iraiz dezake Satan? (Satan ez da askitontsa bere kumaten kaskatzeko gizon demonen baithanik - Satan bere buruari harritza ar liteke) Eta baldin Satanek Satan iraiz balezu (Juek diozuen bezala) bi aldetara bagoke

eta orduan nola diraude haren erresumak - Bere buruari harritza ariz, baster akhaboan da - Eta nik debruak Satanen bidez iraiten baditut, zuen semeek noren indarrez iraiten ditzate? (Zuen semeak C.ri. Enekin dabiltzan apostolu hauk, kristjadu hauk, zuen artean sortuak direz, zuen semeak, eta horiek ere iraiten ditzate debruak, nik bezala ez? Ez bezala?)

Horratoz, zuen semeak horiz berak izanen dire zuen gure - gainan, nik Jainkoaren indarrez khentzen baditut debruak, aithortzaz berak zuen artera ethorria dela Jainkoaren erresuma - (C.ri. Aithortzazue beraz ni jainko naizela, mirakuluak egiten ditudala nere Jainkotzako indarrez, eta ez debruaren indarrez)

Ene alde ez dena, ene kontra da; eta enekin biltzen ez duenak barrazatzen du - (Hemen J.Kristok adiarazten du ez ditekela makila bi buruetarik abeitik - Behar dela jarri agerian Jesu Kristoren alde; eta haren alde ez jartzen ez dena, Jesu Kristok bere ebanjelioa dadukala, zeren kehin esagutu geroz Jesu Kristo Jainko dela, laido handi bat egiten baitzaio, ez alde ez kontra egonez; hori baitzeke ukhime bera ukaitea Jesu Kristoren kontra ala haren ebanjelioaren kontra -)

Fariseoek baitzioten Jesusek izpiritu gachtoa bereki zuela, ihardetsi zioten: Nik erraten dabiltzuet, gizoneri barkatuko zaizkote bekatu guziak, egin ditzaketen burloak edo blasfemiak, edozein; bainan Izpiritu Sainduaren kontra blasfemio eginen duenari, ez zaio barkaturen, ez mundu huntan, ez bertze munduan; hobenduen egonen da betiriainoko hobenaz -

(Hitz horiez J.Kristok adiarazten deraukie Jainkoa hain dela urrikalmendutsua, non edozein bekatuen barkatzera baitago 2° bizkitartean badela bekatu bat egin barkatuzkoa - zein da hura? Izpiritu Sainduaren kontra egiten den blasfemia edo laidoa - Eta blasfemio hori nola egiten da? Gaizkian itzematuz, eta bere buruaz hain buruzki ebatziaz, non ez baitza nahi ikusi eta aithortu, noren bitzara egoen den egia, erraiteraino Jainkoak egin mirakuluak, debruak egiten ditzela - Horiche zen Fariseoen bekatua - Eta Jainkoak, bezalik aitetan hobereneo, ez dezake barka, bere nahitara gaizkian buruzkindurik egoiten denari

3° adiarazten du oraino bekatu hori ez dela barkatzen ez munduan huntan, ez bertzean -

zeraz badire bekatuak barkatzen direnak, batzu munduko humtan, batzu
bertze munduan - Eta bertze mundúan, non? Jesuan othe? ez, han ez baititeke sar
bekatuarekin, den mendrenarekin ere - Jesuan othe? ez eta ere - han
sarkera ezttirikoti baita, han ez da barkamenduric - non beraz? Purgatorioan
dioté heiéaz J.Kristoék adiarazten du sadela purgatorio bat, bekatuak barkatzen diren
toki bat; eta ichilaraztén hiru hetsentzak, hirenak ez dela purgatoriorik, eta ez
duela balio hilenkiat othoitzik egitea -)

Errazue ché ona dela arbola bat, eta haren fruitua ere bai -
eto dela txarra arbola hura, eta haren fruitua ere bai;
zeren fruitutik baita arbola ezagun - Sugehumeak, zeorrek
txarrak izanki-ta, nola erran dizakegue deus onik; zeren
ahoa mintzo baita bihotzeto gainditurakik - Gizon prestuak
gauza ondk atteratzen bitre bere bihotz ontotik, eta gizon
gaiztoak ere bihotz~~eto~~ gachtotik gauza txarrak dakarrika -
Bada, nik derratzuet, jujamenduko egunean, gizonak beharko
dueta kharteksi, erran dituen elhe alferrez. (Idas gaitoez kondu
emán beharko dela, eraan gabea; bai eta ere solas hizanez - Gainan hemen
dio Salbatzaileak, edozoin solas alferrez erez --) Zure aitotik ijanen
zare juzatua, ~~ch~~ jarti elo hobenduen - (Horien gainean Jantoki Jakobek
dio: "mihiz bekatu egiten ez duen gizona perfeta dela - Eta San
Frances Salesekoak dio: mihiak salatzen dituela gure barneko herriak)

Orduan Fariseo batzuk zenbeitek hurbildurik Jesusen ganat,
eraan zioten: haussia, nahi ginuke zure ganik miakulu gerbeit
ikusi (J.m. Jer kopeta! Jadanik, zenbeit hilabethe hetan J. Kristoek
bazituen hainbeste miakulu eginak, eta handienetarik, hilak ere
bizitzen, jadanik pizituak, halako gizai non herriz herri zendea jarraikitze,
baizik jaion, zenbeit eguneen gatzkoa berekin harturik, ~~ch~~ haren solasen
entzeko, haren miakulueen ikusteko, eta fariseo hek badute bekokia
jesuri galdetzeko egin dezan miakulu bat heien bizian eta hekienkiat,
ea, naski Salbatzaileak joanen baita miakulu baten egitera jauntto
heien etche aitzinera - Jer ~~dirgulua~~! Jr barne gaiztoa! iduri-eta
miakulu zenbeten aitzinean ~~egin~~ eta denentzat egiten zituen miakulueak
ez zirela askí hekienkiat! J.m. eraiko eguenean ere aditzen dire

gutarteau fariseo hek bezala mintzo direnak, sineste-gogorrarena
egiten dutenak, errancz: bai, guk ere sineto ginezake, gure begiz
ikusten baginu miakulu egiazko bat, jakintsun handienen aitzinean
gertatua(1) - J.m. Jerrogoi-ta hamar bat urthe hauetan, hortzetik urdeen
bereau, zenbat miakulu ez da gertatu - herezikiagorrilako beiletan -
trains de malades (Mooi) zer gaztoak! zer ezinajeak! tout cela touche
le Ciel, frappe et le porte à faire miracle - jusqu'à 30.000 et plus de spectateurs
jeila hork zerlak-gelliaraji -- herriz hasito ...
Jy allait avec ferveur jusque chaque année - Vidimus miracula - Ici ne -
hortako aski dire bi hegi, eta hek onak - aski da jentzua, ez hura ezto -
Seguruzko egiazko miakulu bat ijan dela - Paz bezain de Saranto!
(2) Sinestéko, behar da ukhan bihotza laño et umil, garbi - Behar da
oraino jainkoaren grazia (certa cum humilitate) jainkoak eman othe
(3) bezokete? Ez da seguru, jainkoak egiuik ere miakulu bat hetien
aitzinean, sinets bezaketela(2) Eta halakoetri ez diote egiten ere
galdatzen duten miakulu hura -

Ca'mirí ce que répondit Jésus aux Pharisiens:

Ume gaisto eta gaijki jin hauk miakulu galdez daude, bainan
ez gaiote miakulurik emana ijanen Jonas profetarenaz bertzerik.
Hala nola Jonas hiru gau-eguez egon baita balearen sabelean,
hala Gizonaren Semea eguen da hiru eguez hurraren barnean -
(Historiola Jonas - Rivôlt à vous qui l'avez fait taller prêcher pénitence aux Ninivites - Remborque
à l'eau - me manvaise - fâché à mon - Jésus - rejeté - va à la mauvaise pensée tourné - Item J.C. à la croix au
tombeau - Ici Jésus - (pour le salut de tous qui allaient périr par la tempête - Item J.C. prophétisant la
passion à ses amis à la mauvaise opinion de la Nation - Item passion de J.C. Mort aux Juifs
après sa mort à la tombeau -)

Ce fut grand miracle - Foi merito pour gizon bandeskiteko aski dena - Ez da
resurrection de J.C. - Une jainkozko indarrez - Ici ce n'est pas un vivant qui ressuscite
un mort, mais un mort qui se ressuscite - Jésus dit: voilà le miracle que je ferai
pour les Pharisiens comme pour les autres -

Jujamenduko eguenean, hiritarrak atheratako dire (Fariseo) haukien kontra -
eta kondenatuzen dituzte, zeren berak urrikitan zaitu bainan, Jonasen
predikuaren ondotik, eta bizkitartean hemen dena (Jesus) Jonas baino gehi-
-agokoa da -

Jujamenduko egunean Hegoago erregina ere haukien Kontra
altxerako da, eta kondenatuen artu, jeien bera lurraren bertze kurutik
jin baita Salomonen solas zuhurren entzutera - eta bijkitzarkan hemen
dena Salomon baino gehiagokoa da -

(Hemen salbatzailiak adiarazten dite Fariseoeri eta gurieri, minitarik
guk baino grazia eto argi ~~handiago~~ ukanik itsuli jiela Jainkoaren
gana - eta jujamenduko egunean gure kontra altchatuko diela, ez gizelakotz
baliatu, ijan dikegun argi eta grazia hain handiez -

Izpiritu tohia (tchua) gizon batein ganik ilki denean toki agor-
retan barna paussatzeta dabila, eta ez du aurkitzen - Orduan dio:
Nitxiko naiz, ilki naizen tokira - Hara denean, kausitzen du hutsa,
garbitua eta apaindua - Orduan badoha eta hartzen ditu bertze
zazpi izpiritu bera baino gaichtoagoak, eta sartzerik han egiten
dute bizi - eta gizon haren azken zoria, lehena baino
hitzagoa da - Jauza bera gertatuko zaiote jende gaichto
haukieri ere -

(Debuak, gure barnerik khendua ijan delarik absolusione sakramentuaren
bidez, eta bere barnatzen - berriz batabila gure arimaz jabetu beharrez,
bainan ikusten du graziazko estalkuan zaurria (garbitua, apaindua)
berutuez eta chit onez apaindua - Orduan badoha lagun-teke - bera
ederi izpiritu gaichtoekin azkenean berriz barnatzen da, eta bertze
izpiritu gaichtoekin azkenean berriz barnatzen du lehen
eroritoak baino aphalago - Hala nola gure gerazpiko eritasun batetarik
zendatu eta laster berrazten bada, bigarren eritasun kaltegarrik
lehenagoko zendatzen da -

Marie et parents de Jesus

Hola mintzo zelarik ostean, Jesusen ama eta ahide batzu
(kusiak - kusinak du Sacre de St Joseph) jin ziren, Jesus entzutera nahiz
eta berak ezeiekin mintzatzeko beharrez - Bainan orin hurbilduz zagozin, oste
gaitza Jesusen ingurutan zauria zagelakotz - (Aphur bat) egonik
Jesus urrundik beha, azkenean herbeit igorri zioten errateiat:
Zure ama eta zure ahideak urrundik daude zure galdez

Hainbertzenarekin, jenden artetik, emazteki batek aihu egin
zuen: Dohatsu zu hazi zaituen ama - (Emazteki hark nahiko zuen
ijan Jesus bizialako Semea bezala ama) Bainan Jesusek erran zion: Zoritxarkoz
aihu egiyu: Dohatsu jainkoak errunak sinesten eta egiten dituztenak -
Nor da ene ama? Nor dire ene ahideak? Jainkoaren errana sinesten
eta egiten dutenak - Eta eskua hedatuik bere dizipulueri gainera,
beha zioten haren inguruan jarriak zaudenei eta errain: Huna
ene ama eta ene hurbiltzekoak: Jainkoaren hitza sinestea, eta harek
nahi duenaren egitea, hori da izaitea ene ama, ene anaya ene arreba -

(Hemen Jesusek adiarazten dauka haria ijan dela emazte gurjsban
urrezena, ez bakarrik haren ama ijan delakotz, bainan bereziki Jainkoak errunak
sinetsi eta egin dituelakotz - Nor da zoinduena? ez Jainkoaren ganik fagore
gehienik ukaiten duena, bainan hetan hobekienik baliatzen dena -
Jesusi eder zaio edolchik heldu din ahidegoa, bainan ederago zaio
grazziatik heldu dena -

Semeur

Bertze egun batez, itsas bazterrean jarririk, hasi zen
predikatzen - eta haren inguruta bilduzen han bateko ostea,
non untzi batera iganik, oste guzia itsas-hegian beihorretik
zagolarik, itsasotik hasi-baitzen asko gauzen irakasten para-
boletan (c.ná. erlijioneko egia batzu erraiten dituela alegiazko istorio
batzuen itzuran) Adi zazue: Zraile bat ilki etchetik, bere
haziaren eraitera - Eta eraiten ari zelarik, hazi batzu bat erori
zen bide bazterretara; eta ethorri ziren zerueko chorlak eta jan zuten
Bertze batzu erori zen toki harritsu batera, eta tzehala
sortu zen, etzuelakotz lurra sodi - Bainan igaztia agertzearekin,
chispildu zen, eta ihartu, errorik etzuelakotz. Bezadurazen emaiteko -
Bertze batzu erori zen lapharren artera - Hazi-ek batzuen, laparrak
ere handitu zirenez, eta itho zuten, eta fruiturik ez zuen eskarri
Azkenean bertze batzu erori zen, eta sortu zirenez emanez bihi,
hemen 30, hor 60, han ehun - Gero aihuka hasi zelarik errain zioten:
Adizkeko beharrirek duenak, adi beza -

Jesus bakarrik geldiko zenean, harekin zirenak hamaki apostoluek)
hurbildurik, galdetu zioten zer ceran nahi zuen parabola horrek, eta
Jesusek mintzo zen hoia hitz eztaltzan - Jesusek ihardetsi zioten:
Zuretako mintzo zen hoia hitz eztaltzan - Jesusek ihardetsi zioten:
Zuri emana zaitzue zeruko gauza gordeen ezagutzea, ez ordean berze
batzuri emana zaitzue zeruko gauza gordeen ezagutzea, ez ordean berze
horieri ez zaiote emana (Berze horiek judeuak dire - ez zuen sinhetsi nahi Jainkoaz
emana haikolette grazies, argiz, miratuaraz - ez zuten sinhetsi nahi Jesu Kristoren jainkotasuna)
Horrenbat hitz eztaltzan doazi nik erranak oro - Erik, ducnari emanen
zaio, eta ukhanen du nasai; ez ducnari aldiz, bere ustez ducken hura
ere khendueko zaio (Hemen Jesusek adiarazten ducku norbeit ontsa bataiatzen
dela bada Jainkoak emaiten grazia batez, hari Jainkoak emanen diola bizitzeco grazia
eraitze batzuetara - aldiz ez dela bada bataiatzen ichen grazia hartaz ukhan bicn
hura ere khendua izanen zaiola -

Huna berat zertako parabolatan mintzo nitzaicten berze horieri: zeren
ikusten ducten ez dutelakotz ikusten - ahitzen ducten ez dutelakotz
aditzen - konprenitzen - Hola betetzen da horien baitan Isaie profetak
aitzinetik eraan hau: Zeharriz entzunen ducue, bainan ez konprenitzuke -
beeri ikusiko ducue, bainan ez da zarete ikasiko (Hori da jainkoaren
gaztiga handi bat - norbeit ez dezaean bataiatzen jainkoaren grazies, gaitzikiatan galtzeko
beretu da, ezpada ez jainkoaren jainkozen argi eta grazies, bataiatuei agertzean
jainkoak ez zaio gehiago mintzo bataiatzen - ez mintzo hallo bataio maiie ez, ala
konprenitzeke - lehenago hitzka entzuiten zuten gezurrak bezi gozo ustez dute, ez dute
sinhetsiren ez konprenitzen) Alabainan gehiela hunek gogoratzena ezin du
bezeiak helzi dike; beldurrez bezi dituzu eta beharriz entzun eta haren
hitzetza urrutiti deradazu eta sinda. (Hutsaltzek ez dutek ezin ikusi nahi ez
entzuiten nahi, ez baitute konbentitu nahi - beren mina maitte dutek, eta ez
sendatu nahi - horra nolakotzen hiten aitzinean jainkoaren grazies bataiatzen ez
direnak.

Huna nola J. Kristok ehehatu ziosten eraitzearen parabola. (argitzen zuen)
Hazia Jainkoaren hitza da (Erakaspenak, catechismoetan predikuetan eskolietan
jakintzia emaiten Jainkoak ezetsen dituen argiak...

1° Zenbeitek uzten dute ene hitza erortzera bidearen gainera, hek dire
arimak ene hitza entzuiten dutenak; bainan entzun dutenekoa, heldu da
dohua eta hekien bihotzetik khentzen du hitza, hartaz ez dituzen
balia eta salba - (premiere classe d'ames - arimak, barraiatuak bidearen
pare direnak, oro harat hunaka dabiltza bidean - arima hek ere ez dire
bildurik hiren baitan - chouak heldu diu haziharen patera, C'est
airean dabiltzan izpiritu gachtoak, dehuak - qui emporte la semence ...)

2° Toki harritsuetara hitza eraitzen zaioten arimak dire, ene
hitza hartzean pozgotik entzuiten dutenak, bainan gero, ez dutelakotz
erroaren tokirik, (pharisa hurbil) traupen ttikia dute; eta ene hitzaren
ohatzeko, heldu zaiotelarik zerbeit tentazione edo nahigabe,
berehala eroriak dire, eta ez ganik urruntzen dire -

3° Hazia ekhorrizen artera eraitzen zaioten arimak dire, ene hitza
entzuiten dutenak, bainan bar hunitako grinek, aberasta nahiak
alzegin gachtoek ithotzen dute hitza, eta fruiturik ekartzera ez
uzten

4° Hazia bar onean eraitzen zaioten arimak dire, ene hitza
ontzetsen dutenak, bihotz on batean beriatzen, eta pazientzia
harkuz (bortcha egin-arazi Spectateurari) fruitu ekartzen dutenak, batek
hogoi-ta hamar, bertzeak 60, bertzeak ehun -

à chaque Semeur, Semence tombe en nos âmes - produit
par en toutes le même effet - les unes par une raison de nature
ci-devant indiquée, laissent perdre la semence - se disant Capendant
: j'entends faire telle chose que je n'ai pas l'intention - mais -
les autres profitent, mettent en pratique la parole - se sauvent.

Parabole du fils (enfer)

Jenuetako erresumak iduri du eraino sare bat ibaina artikia, eta arrain mota guzietarik biltzen duena (ongia eta gaizkia, saindoak eta tkatnozak ere nahas mahas dire bat bestetan - Ikarrek kasik iduri nausi diele - Bainan ere chuchenduko dire bertze munduan)

Beltzea denean atheratzen dute, eta ibai-begian jartzirik, onak sorbaldetara krechten dituzte, eta ikarrak kanpoat artikitzen

Halaber da gertaturen mundoaren akabantzan - ilkiko dire aingeruak eta beresiko dituzte gaistoak presuren artetik, eta labe khaldatura artikiren dituzte; han izanen baitira negarrak eta hortz karraskak

parabola hau mintzo ifernuaz - - Ivan du 14 textes sur Enfer -

Bon grain et ivraie — Enfer -

Bertze parabola hau athera zuten, erranez: Jenuko erresumak iduri du gizon bat, bere elgean hazi ona erain zuena - Bainan etchekoak lo zaudelarik, ethorri zen Satan, eta ogiaren erdian erain gainetik hiraka, eta gero joan zen - Ogia handitu zelarik eta burutu, agerka zen hiraka ere. Orduan etcheko nausiari ethorri zitzaizkon Jehiak erraitera: Jauna, Ez ottoi zinuen hazi ona erain zure elgean? Nondik du beraz hiraka? Nausiak ihardetsi zuten: Hori Satanen lana da - Jehiek erran zuten berri: Nahi duzuia goazen eta bil ditzagun hiraka - Nausiak ihardetsi zuten: Ez, beldurrez eta hiraken biltzean, heiekin batean errotik athera dezazuen ogia ere - Utzaiz arkhi ukitzkipue denak handitzera, eta orduan erranen diotet ephaileri: Bil zazue lehenik hiraka, eta erpalka lotu zazue errezteko; ogia aldiz ene selharura bil zazue.

Osteak urrunetu zirelarik, dizipulnak hurbildu zitzaizkon eta erran: Nausia Cheha diguzu elgeko hirakaren parabola. Jesusek ihardetsi zuten: Hazi ona erain ducna da Jainkoaren Semea - Elgea aldiz, munduia da - Hazi ona jenuko umeak dire Ebai hirekia erraitea da debrua - Ustaroa da mundaren akabantza - Ustalpuiteak dire aingeruak - Nola beraz biltzen

baitire hiraka eta suan errekiten, halaber da gertaturen mundaren akabantzan - Orduan Jainkoaren Semeak igorriko ditu bere aingeruak; haren erresuman dirien eskandala eta gaiztagin guziak bilduko dituzte, eta labe gorritura artikiren dituzte - Han izanen dire negarrak eta hortz karraskak - Orduan Saindueak argituren dute, igurtziak bezala beren aitaren erresuman. Behar nuenak aditzeko, adi beza -

(Hiraka da belhar gaichto bat, hazi ona ilhotzen duena - Jainkoa ari da arimetan hazi onaren eraiten, erlijione ko urhatsen jarraikaraziten; debrua aldiz gaur (ca. gordeka) ari da eraiaspen ttarren eraiten giristinen artean, sekatuko bidetara heien bilhteko - Gure Elijan badire, bai eta beste ijanen giristino onak eta ttarrak nahas mahas - Jainkoak ikusten ditu guziak - Ttarrak ere jasaiten ditu, haren gana berri itzultiko direlakoan - Mundaren akabantzan onak bilduko ditu Jesukristo selharura - gaistoak aldiz ifernuko sura - Badire giristino on batzu (schi hek bzala ndusiaren ebeeari atchikiak direnak) nahi bakotzak Jainkoak berehala khen ditzan gaichtoak onen artetik, gaizkia egiten dutelakoti - Bainan hartzen du pazientzia, luzatzen du, gaistoek oneri mereginendu hainitz iraba - araziten badiote eta askotan gaistoak onhen baitzire, onen artean egonez - Herrela adiarazten dauku eskandala bihtzuen gure artetik khentzeko, behar dela zuhurtzia handi batekin eta emeki jokatu, bertzenak ongi baino kalte gehiago egin baitzeke - Azkenean adiarazten dauku, Jainkoak hiru luzatzen ijan ondoan, gaistoak ez badire onhen, ifernuko lekuan gorritzen artzidiak ijanen direla - Huna hau ere J. Kristok ifernua aipatu duen 14 aldietarik bat -

Jenuko erresumak iduri du eraino perla bat on keta dabilan traficaria. Kausitu duenean perla balios bat, badoha, dituen guziak saltzen ditu, eta erosten du perla hura - (Dirutze hori, perla balios hori dira grazia eta jenuko loria - Grazia ez da inon handiagoa ezta berta bi ganza segurtatu behar dituzunak, ez nahi gertatzekere; dituzun guziak emanbehar bagenitu ere bertzela - Jes dire kontuz ibiltzeko ontasunak, grazioen altzoan, sendatzeko gerizonaren altzoan

Jésus méprisé à Nazareth

3- Mission en Galilée

Jesus bazabilan hiri-ta-herritan gaindi, hango sinagogetan irakatsiz, zeruko ebanjelioa predikatuz, gaitz eta eritasun guziak sendatuz - Oste hek oro ikhustean, urrikaldu zen Jesus, nekatuhk zirelakotz eta ezindueak, artzainik ez duten ardiak iduri - Orduan erran zioten dijipulueri: Egiazki handia da usta, langileak aldiz zuti, othoitz azue beraz ustaren nausia, bere ustara igor ditzan langileak -

Usta handi hori zer da? animen usta, conbertitu behar liteskenak eta usta bat bezala, zeruko zelaurat bildu beharrak - Hainitz dire hobeto Jesusen denboran bazirien, oraiere bai 1° Asian eta Afrikan zenbat basa braino bathaiatzekoak! 2° Europan eta Ameriketan zenbat herétiko eta schismatiko - 3° katolikoen artean terean, zenbat izenez bakarrik giristino direnak - Jesusek berak dio: othoitz egizue ustaren nausiari, bere ustaren bilkera igor ditzan langileak, c-à-d: nork behar dugu othoitz jainkoari, eraikaraz ditzan gutartean misionestak, joanen direnak asiarat eta afrikarat hango infidelen paganoen artzitera, bathaiatzera eraikaraz ditzan gutartean apezonak eta giriniskino kartsuak, ikuskarazitko ditzatenak herrij gure bilijionera, gutarik terechiak dagozkiak -

Othoitz hori, nayki, nehork guti egiten bahugu -

Othoitzdy berkerik ere behar liteke - Zuen etchetarik langileak eman jainkoari, apez-geiak jainkoaren lana eginen dutenak - animen usturen bilkeko -

Apez-gei baten emaitera Elijasi, hori da famitia giristino batek jainkoari egin dezoken atsegin handienetarik bat / salbatzeilak berak hola galdatzen dituenaz geroz langileak / Hala hala jainkoak famitia bati egin dezoken ohorerik handiena da, apez-gei baten hartan hautatzea -

Aris aux Apôtres

Bere ondora bildurik hamabi apostoluak, Jesusek erran zioten:
- Ez joan predikatzera paganoen bidera, ez eta Samariarren hirietara.
Bainan zoazte lehenik Israelgo etxeko ardi galdueetara -
(Jesusek nahi zituen lehenik Juduak bildu bere gonat - eta gero, hekiin
(ondotik paganoak eta Samariarrak - Bainan Juduak gogor egon ziren, eta
(hek baino lehenago Conbertitu ziren paganoak - Juduak ez hire bilduko
(munduaren akabantzan baizik -)

Predika zazue, errancz: Hurbildua da zerurako erresuma -
Senda zazue eriak, hilak piztu, legentzuak garbi, debruak irazi,
urririk urkana urririk emazue - (miraku horien egiteko ahala
nik urririk ematen dautzuet - just eginen dituzue urririk miraKulurik)
Ez ekar zuen gerrikoetan, ez arke, ez zilhar, ez hiru - ez hideko har
alphortzarik, ez eta bi soineko, ez makilarik, ez eta oinetakorik,
langileak merezi baitu bere bazkuntza - (Deraz ez ezeman deus
zuekin, nonere predikatuko baituzue eta hangoek emanen dautzuete bizitzeko,
zuzen den bezala - langileak ...

Edo zoin herri edo hiritara joan sitezten, galda zazue nor den
han gizon behar-bezalakorik, eta haren etchean zaudezte, herri hartarik
joan arteo - Etche batean sartzean, agur egiozue, errancz: Bakea
etche huni - Eta etche harek merezi balin badu, zuen gain bakea
bakea etche haren gainera jautxiren da; ez badu ordean merezi,
zuen gain bakea zuen gana berriz biheruren da, Eta nor beitek ez bazaituzte hartu nahi ez bazaituzte entzun nahi, atteira zaizte etche hartarik eta hiri hartarik, eta hanporatzean
inharros-azue zuen oinetako herrautsa (han geldi dadin - erraten bazioiote
bezala - ez duegu deus nahi gehiago zuekilakorik -) Egiaztatzeco billa hemendik ere.

Hik erraiten dautzuet egiaz, juzamenduko eguna Solomarrentzat eta
Gomorrarentzat ezhiago izanen dela hiri harentzat baino -

Igortzen zaituztet hala nola ardiak otsoen erdira (alors
c'était mai - Judu errabiatuen erdira, paganoen artera - pour nous convertir mai)
Izan zaitezte beraz zuhur sugea bezala, eta usoa bezen taño
Ezti eta taño izanez, ardia eta usoa bezala, animu gehiago Conberditzeko
zutela, bilduko barreriaz baino - Bizkitartean erraiten diote ezitoiena ez

dela azki - sugea bezen zuhur izan behar dutela - berkzenaz itzultu batzuentzat
harituko dituztela) Bainan zaudezte erne gizoneri buruz - (hemen J. Kristok
dio debruak jendeahi eginen duela erlijione hunaren eze ustako sarkzea - eta
eska makilatako atzemanen dituela gerjoraz gure erlijioneari jazarriko diranak
- izen eremanen zaituzteta hiruen aurkeiztara, azotatuak izateko -
Ene gatik eremanak izanen zarete aitzindarien eta erregeen aitzinera,
hekiin eta populuen aitzinean ene lekuko eta ene alde jartzeko - agertzeko -

Bada hekiin eskutara ezarriak izanen zaretenean, ez bilha zuen
buruetan, nola edo zer ihardetsiko duzuen, diozuten - zeren orduan berean
emanen zaitzue zer erran - alabainan ez zarete orduan zuek mintzatuko,
jainkoaren izpiritua da zuen aboz mintzatuko - (de fait toute cela est
arrivé - Le souffrance de martyre qui convient un courage que ne s'explique que
par miracle de grâce - la sagesse de leurs réponses ne s'explique que par
l'Esprit Saint -

Hiltzera igorriko du anaiak bere anaia - aitak bere semea - haurrak jazarriko
zaizkote burhasoeri, eta hilen dituzte - (Halako erechia zuten paganoek giristinotzen
jinenen kontra, non familia bateen merkeit giristinotzen kalin bazen, haren haurridek kurek
salatzen baitzuten - jeno har-arazten, hil-arazten - Horiek ere ikusi dire J. Kristok aitzinetik
erran bezala) Ene gatik izanen zarete gaitzetsiak ororlan, bainaty horrek ere
ihardukiren baitu buruzaino, hura izanen da salbatua - Hiri batean gaizki erabiliak
balin bazarete, ihes egizue berkzera - (Conberditu nehi ez duenarekin ez du nahi J. Kristok
denborarik gal degalen, denbora kalur baita) Egiaz erraiten dautzuet, Judeako hiri guziak
ikusi gabe ginen zuekin Jainkoaren Semea - (hilon zarete)

Dizipulua ez da nausia baino gehiago - ez eta sehia jauna baino gorago - Dizipuluari
aski behar zaio bere nausia bezala izatea, eta sehiari bere jauna bezala -
(J. Kristok aitzinetik esitzen dihe heinen apostoluek izanen dituzten nahigabeak, erranez pairatu
beharko dutelarik, salbatzailearen idurin izanen direla -)

Ez izan beldur zuen gorputza hil dezaketenen, bainan zuen ariina ezin hil dezaketenen
bainan izan zaitze beldur zuen gorputz eta ariinak ifernuan igor ditzakeenarekin

Suite

Izaleau diren gurziak agerturiko dire - Jordeak diernak jakinen dire - (c.d. orano ezagutua ez den Elanjilioa predikatua barraiatua dire - izanen da orotan) Nik ikhusbetan zuri erranak erraz-kizque zigilara, ezaneu da orotan) Nik ikhusbetan zuri erranak erraz-kizque zigilara, beharriza erranak, erraz-kizque etche kaxtatarik - Ez ijan beldur- nik beharriza erranak, erraz-kizque etche kaxtatarik - Ez ijan beldur- (Hemen J.Kristok dio apostoluek predikatzerik ez dutela Elizaren ehaim heldu- (Hemen J.Kristok dio apostoluek predikatzerik ez dutela Elizaren ehaim heldu- ijan behar bainan behar dutzutela J.Kristok hunak orotan ezagut-arazi-) ijan behar bainan behar dutzutela J.Kristok hunak orotan ezagut-arazi-) Ez beldur ijan; ni etche-chori ez othe dire bi arditolan Salbzen? Ez beldur ijan; ni etche-chori ez othe dire bi arditolan Salbzen? Hetz hetarik bat ez da hurrerat eroriko zeruko aitaren nahiz gabe- Hetz hetarik bat ez da hurrerat eroriko zeruko aitaren nahiz gabe- ijuen buruko ileak ere oro kondatuak dire - ez beraz ijan ijuen buruko ileak ere oro kondatuak dire - ez beraz ijan beldurrik, hainitz etche chorik baino gehiago balio bachizue- beldurrik, hainitz etche chorik baino gehiago balio bachizue- (Hemen J.Kristok dio jainkoak aitha badutela hurrelo gauza ez deusenez, (Hemen J.Kristok dio jainkoak aitha badutela hurrelo gauza ez deusenez, zeta bachizue buruko ileak bakar bat, ardit bakarean saltzen ten chorizo, eta zeta bachizue buruko ileak bakar bat, ardit bakarean saltzen ten chorizo, eta hainitz gehiago aitha ukanen dutela bere apostoluez, Kristok herbatutko hainitz gehiago aitha ukanen dutela bere apostoluez, Kristok herbatutko dituztelarik) Nor ere ene alde jarriko baita gizonen aitzinean, dituztelarik) Nor ere ene alde jarriko baita gizonen aitzinean, ni ere haren alde jarriko naiz ene aitaren aitzinean (au jujgement) ni ere haren alde jarriko naiz ene aitaren aitzinean (au jujgement) Aldiz, nork ere ni ukhatuten baitut gizonen aitzinean, nik ere Aldiz, nork ere ni ukhatuten baitut gizonen aitzinean, nik ere hura ukhatuten dut ene aita zerukoaren aitzinean - hura ukhatuten dut ene aita zerukoaren aitzinean -

(Hemen J.Kristok dio ez dugula ahalgetu behar gristino agertzeaz - hori (Hemen J.Kristok dio ez dugula ahalgetu behar gristino agertzeaz - hori gaitzi bailakiske gain-gainetik)

